


Euskal ikasketak  
*Gradu Amaierako Lana*  
Tutorea: Elena Castroviejo Miró  
2021/2022 ikasturtea  
2022ko maiatza

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

---

***NOLA INTERPRETATZEN DITUZTE OROKORTZEAK***

***AUTISMOA DUTEN PERTSONEK?***

**IKERKETA ESPERIMENTALERA LEHEN URRATSA**

- *Anne Guiu Fernandez*

# **-AURKIBIDEA-**

<b>0. Laburpena</b>	<b>1</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>2</b>
<b>2. Adierazpen Generikoak eta Unibertsalki Kuantifikatutako Adierazpenak</b>	<b>3</b>
2.1. Desberdintasun linguistikoak: euskara, gaztelania eta ingelesa	5
2.2. Kuantifikazioaren jabekuntza	8
<b>3. Autismoaren Espektroko Nahasmenaren eragina</b>	<b>9</b>
<b>4. Esperimentua</b>	<b>12</b>
4.1. Aurrekariak	12
4.2. Hipotesi nagusiak	13
4.3. Metodologia	14
4.3.1. Diseinua	14
4.3.2. Materiala	15
4.3.3. Prozedura	15
4.3.4. Parte-hartzaileak	16
4.4. Emaitzak	17
4.4.1. AG eta UKA	17
4.4.2. Generiko faltsuak	19
4.5. Eztabaida	21
4.5.1. GaD ikuspuntua eta GOG efektua	21
4.5.2. Zurruntasuna eta salbuespenak	22
4.5.3. Informazioa eguneratzea	22
<b>5. Ondorioak</b>	<b>23</b>
<b>6. Bibliografia</b>	<b>25</b>

## 0. Laburpena

Jarraitzen duten lerroek orokortasuna adierazteko bi estrategia eta hauen interpretazioa izango dituzte hizpide. Zehazki, Adierazpen Generiko eta Unibertsalki Kuantifikatutako Adierazpenak aztertuko dira, *Generics as Default* ikuspuntua (“Generikoak Lehenespenez”, hau da, prozesatzerako orduan Generikoak Unibertsalak baino errazagoak direla defendatzen da) eta kuantifikazioaren jabekuntzaren ingurukoak aintzat izanik, espekto autistako haurrek modu honetakoak nola interpretatzen dituzten aztertuko da. Kontuan izan beharrekoa da, Adierazpen Generikoek salbuespenak onartzen dituztela Unibertsalki Kuantifikatutako Adierazpenek onartzen ez dituzten bitartean, honi Autismoaren Espektoko Nahasmeneko (AEN) pertsonen berezkoa zaien zurruntasuna gehituz sortzen da ikerketa hau abiarazteko galdera: Autismoa duten haurren eta haur neurotipikoen jarrera bera izango al da Adierazpen Generiko eta Unibertsalki Kuantifikatutakoen interpretazioan? Bestela esanda, salbuespenak maila berean onartuko al dituzte, ala zurruntasunak eragina izango du Unibertsalen onespenean?

Galdera hauei erantzuna emateko helburuz, aurretik neurotipikoak ziren bi haur talderi eta heldu talde bati pasatutako esperimentu bera (Castroviejo eta besterena 2022) errepikatu dugu, kasu honetan AENeko 6 haur/gazterekin. Ikerketa esperimental xume honen helburua, jaso ditugun emaitzak aurreko esperimentukoarekin alderatzea da; izenburuak aurreratu modura, lehen urratsa besterik ez den honi jarraipena emateko beharrezkoa litzateke adin bereko partaide gehiagori esperimentua pasatzea, era honetara ondorio sendoagoak lortu ahal izateko. Edozein kasutan ere, lehen urrats honek hainbat ondoriotara bidea ireki du: batetik, eskuartean ditugun emaitza berriak aurrekoekin alderatuz, partaide izan ditugun 8-15 urte bitarteko AENeko parte-hartzaileek 4-5 urte bitarteko haur neurotipikoen jarrera antzekoagoa dutela ikusi ahal izan dugu. Bestetik, behaketa aurrera zihoan heinean autismoari berezkoak zaizkion beste ezaugarriak erreparatzea ezinbestekoa bihurtu da, hau honela, ikerketa honek balio izan du zurruntasunarekin harremana duen ezaugarri batean berresteko, hain zuzen ere, zailtasunak dituztela informazioa eguneratu ahal izateko eta aurretik zuten ezagutzaz fidatzen direla informazio berria prozesatu gabe. Amaitzeko, lan honen motibazioa izan den salbuespenen onarpenaren ingurukoak miatzean, ondorio sendoagoak lortu ahal izateko partaideen inguruko informazio gehiago behar izan dela ikusi badugu ere, gure partaideen kasuan ikusi ahal izan dugu eszepzioak nolabait onartzeko gaitasuna izan badutela.

**Hitz gakoak:** Adierazpen Generikoak, Unibertsalki Kuantifikatutako Adierazpenak, kuantifikazioa, Generics as Default, autismoa, zurruntasuna, salbuespenekiko tolerantzia.

## 1. Sarrera

Ondorengo lerroek Elena Castroviejo, Marta Ponciano, José V. Hernández Conde eta Agustín Vicentek, Language in Neurodiversity Labeko ikerlariek (Hizkuntzalaritza Teorikorako TALdea, UPV/EHU) abian duten ikerketari ekarpena egiteko asmoa dute. Era honetan, “Semantika eta pragmatika gizatalde atipikoetan” gaia espektro autistako haurrak ikertzera bideratuta egongo da eta aipaturiko ekarpena esperimendu xume baten emaitzak aztertzen burutuko da. Hau honela, Adierazpen Generiko, laburbilduz AG, (“Agureek ile zuria dute.”) eta, Unibertsalki Kuantifikatutako Adierazpenak, hemendik aurrera UKA, (“Agure guztiek ile zuria dute.”) espektro autistako haurrek nola antzematen dituzten ikertuko da. Bi esaldi mota hauek, orokortasuna adierazteko balio dute,<sup>1</sup> AGtzat hartuko ditugu "karakterizatzaile" ere deituriko enuntziatuak, egia gordetzen dutenak, ez soilik une jakin batekoa, mugagabeko aldi batekoa baizik, arau-izaera dutenak edo bestela esanda erregularrak direnak, mota honetako esaldi baten adibidea litzateke: “Katuek biboteak dituzte”. Ostera, lehen esan bezala, UKA ere baliagarria da orokortasuna adierazteko, adibide modura: “Katu guztiek biboteak dituzte.”; dena den, desberdintasun bat bada lan honen gakoa dena: AG motako esaldiak UKAk ez bezala salbuespenak onartzen dituzte. Ikerketa aurrera eramateko, batetik, fenomeno semantiko-pragmatiko honen inguruan bildutako bibliografia ezberdina erkatuta informazio orokorra bilduko da.

Behin semantika eta pragmatikari dagokion marko teorikoa osatuta, jauzi egingo da garapenaren eta komunikazioaren nahasteen alorrera, zehazki espektro autistaren nahasmendua izateak, edo bestela esanda autismoaren espektroko ezaugarriak izateak dakartzan eraginak zerrendatuz, hots, (1) harremanen nahaste kualitatiboa, (2) komunikazioaren eta hizkuntzaren alterazioak, eta (3) buru- eta portaera-malgutasun falta (Kanner, 1943). Batik bat azken ezaugarria izango da aztergai, malgutasunean edo zehazki, honen faltan, zurruntasunean, duen eraginean jarriko da fokua. Hau horrela, esaldi mota hauen interpretazioa izango da aztergai, hots, ea salbuespenak onartzeko gai diren ala ez. Guzti hauek aintzat izanik, esperimenduaren metodologia aurkeztearekin batera, hipotesi nagusi bat plazaratuko da. Ondoren, emaitzak eskuartean izanik, hauek argitaratu eta hipotesiaren ebazpena emango dira. Amaitzeko, lanaren ondorio orokorrak aurkeztuko dira, mugak eta aurrera begirako erronkekin batera.

---

<sup>1</sup>Badaude orokortasuna adierazteko beste forma batzuk baina ez dira eztabaidagai izango lan honetan, informazio gehiagorako ikus Krifka et al. (1995) edo Mari et al. (2012).

## 2. Adierazpen Generikoak eta Unibertsalki Kuantifikatutako Adierazpenak

Orokortasunaz aritzeko euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez behintzat erabiltzen diren bi estrategia izango ditugu hizpide: batetik, Adierazpen Generikoak edo Generalizazio Generiko deiturikoak leudeke, “hizlarietara klaseez, indibiduo-motek edo motek hitz egiteko aukera ematen diotenak” alegia, “zerbaiten ezaugarri bereizgarriak adierazteko edo/eta munduari buruzko ezagutzak helarazteko erabiltzen dira, honen barruan sartuz, sinesmenak, estereotipoak eta aurreiritziak” (Lazaridou-Chatzigoga, 2017). Esaldi mota honen adibideak lirateke:

- (1) Katuak zutik erortzen dira.
- (2) Txoriek hegan egiten dute.
- (3) Haurrek negar asko egiten dute.

Ostera, UKA edo “Modu irekian kuantifikatutako ohiko esaldi batek zenbatzaile (Q-sintagma) bat edo beste elementu kuantifikagarri bat du” (Rimell, 2004). Esaldi hauen adibide modura zerrenda ditzakegu:

- (4) Katu **guztiek** lau hanka dituzte.
- (5) Txori **denek** hegan egiten dute.
- (6) Haur **orok** negar asko egiten du.

AGak ondoko ezaugarriak erantzuten diete: a) orokorrean ez daude denbora zehatz bati lotuak, atemporalak dira; b) ez dira gertakari isolatuetan oinarritzen, arau edo erregulartasun bati jarraitzen diote; c) testuinguruaren murrizketak gainditzen dituzte; eta d) salbuespenak onartzen dituzte. AGak eta UKAk bereziki azken bi ezaugarriak bereizten dituzte:

1. Testuinguruak ezarritako murrizketak: generikoak eta unibertsalak bereizten ditu, generikoak ez baititu testuinguruak mugatzen. Krifkak (1987:7) zioen guztiak bezalako zenbatzaile esplizituak dituzten perpausak ez bezala, generikoak ezin direla testuinguruan mugatu.

[Testuingurua: Lehoiak eta tigreak daude kaiola honetan]

- (7) Lehoiak arriskutsuak dira.
- (8) Lehoi guztiak arriskutsuak dira.

Hau da, (8)an «**guztiak**» zerbaiten parte izango dira, kasu honetan kaiolako guztiak, testuingururik gabeko munduko guztiak uler bagenezake ere; ostera, (7)ak animaliaz orokorrean hitz egiten digu.

2. Salbuespenekiko jarrera: AGek onartzen dituzten bitartean UKAk ez dituzte onartzen. (1) eta (4) esaldiei begiratzuz ikus dezakegun modura, hanka bat falta duen katua katu bezala onartzen du lehen esaldiak, ez ordea laugarrenak. (Lazaridou-Chatzigoga et. al., 2015)

Iritziak iritzi, salbuespenen puntuari dagokionez, Pelletierrek adierazi zuenez (2010:9), ez dago argi zenbat salbuespen onar ditzaketen benetazko AGak izaten jarrai dezaten. Generiko mota ezberdinak proposatu dira, Leslie et al. (2011:19)en zerrendaketa ekarriz honakoak genituzke:

- Ia-definitzailea: “Karratuek lau alde dituzte.” (hauetan egia analitikoa agertzen da)
- Gehiengoaren ezaugarriak: “Zebrek marrak dituzte.”
- Gutxiengoaren ezaugarriak: “Lehoiek melena dute.”
- Gehiengoa: “Autoek irratia dute.”
- Deigarria: “Marrazoek jendea erasotzen dute.”

Azken hauetan, “generiko deigarriak/ikusgarriak mota bateko indibiduen azpimultzo txiki bateko baieztapen tipikoak dira, baina propietatea ez dena izaki horien halabeharrezko ezaugarria, deigarria edo bereziki interesgarria da gizakientzat” (Lazaridou-Chatzigoga, 2017; nik itzulia) eta horregatik orokortzen da. Aditutik aditura sailkapena alda daiteke, eta azpimarragarria da esaldi batzuekin, zaila dela bakoitza mota bateko azpimultzoan sailkatzea.

Adierazpen hauekin egindako esperimentuak ez dira hizkuntzalaritzaren alorrera mugatzen, psikologia esperimentaleko alorrean ere piztu du interesa, “batik bat Gehiegizko Orokortzearen fenomeno medio (*Generic Overgeneralization Effect*)” (Leslie & Gelman, 2012), akats bat da zeinak UKAk AG modura interpretatzea edo gogoratzea dakarren. Gauzak horrela, Kahneman & Frederick (2002)ek hipotesi bat garatu zuten hainbat emaitza oinarri hartuta: Propietate desberdinak dituzten bi sistema kognitibo daudela planteatzen du. *1 sistema* azkarra, automatikoa eta esfortzurik gabea da; *2 sistema*, berriz, motela, saiaturia, goi-mailakoa eta arauak ardaztua da. Ildo honetatik, eta gaira etorritik, Leslierek (2007) *Generic as Default* (GaD) hipotesian oinarrituz, hots, generikoak interpretatzeko errazak direla eta ez dutela unibertsalen prozesamendu bera behar, AGak *1 sistemari* atxikitzen dizkio eta aldiz UKAk *2 sistemari*, era honetan azaldu nahi du UKAk AG modura interpretatzea. Leslieren

aburuz, “UKA esaldiak AG bezala interpretatzearen gehiegizko orokortzea *1 sistemaren* “alferkerizko” gehiegizko erabileran datza”.

### 2.1. Desberdintasun linguistikoak: euskara, gaztelania eta ingelesa

Lan honetan aztergai izango ditugun hurrek Lehen Hizkuntza (H1) gaztelania dutenez, hipotesiak garatzeko orduan ezinbestekoa izango da fenomeno honek gaztelaniadun haurrengan hartzen duen forma ezagutzea. Castroviejo eta besteren ikerketa-lana (2022) oinarri hartuz, gaztelaniaz nagusiki, ingelesez ez bezala, AGak plural definituen bidez adierazten dira, esaterako: “*Los gatos tienen bigotes.*”, ostera UKA moduko esaldiek determinatzaile definitua hartzen dute: “*Todos los gatos tienen bigotes.*”. Dena dela, kontuan hartu beharrekoa da hizkuntza guztietan ez duela forma bera hartzen, garrantzitsua da orokortasunaren adierazpenari buruzko bi gertaera linguistiko aipatzea: batetik, hizkuntzen artean, hizkuntza bakar batek ere ez duela zenbatzaile edo determinatzaile bakar eta gardenik orokortasuneko markatzailetzat (Dahl, 1995:425), eta honen ondorio bezala, hizkuntza baten barruan, adierazpen generiko batean Izen Sintagma (IS) mota desberdinak aurki ditzakegula (ikus Krifka et al., 1995:19). Horien artean, esaldien karakterizazioan agertzen diren IS mota ohikoenak plural biluziak (pluraltasuna adierazten duen determinatzailerik gabe), singular mugagabeak eta singular definituak dira (Lazaridou-Chatzigoga, 2017). Jarraitzen duten lerroetan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dauden desberdintasun linguistikoak izango dira hizpide.

AGekin hasiz, ondorengo adibideak izango ditugu eskuartean:

(9) Gaztelaniaz: “*Los gatos tienen bigotes.*”

(10) Euskaraz; “*Katuek biboteak dituzte.*”

(11) Ingelesez: “*Cats have whiskers.*”

(9) esaldian, arestian aipatu modura, gaztelaniaz plural definitu bidez adierazten da, (10)ren kasuan euskarak aurreko kasuan bezala jokutzen du, -ek atzizkia geituz, ergatibo plurala; ingelesaren kasuan, (11)k plural biluzia (*bare plural*) darabil orokortasuna adierazteko. Alabaina, Krifka eta bestek (1995) zioten bezala, beste modu batzuetara ere adieraz daitezke hizkuntza beraren barruan, pluraletik singularrera pasaz:

(12)a. El gato no es un animal muy cariñoso.

[singular definitua]

b. Un gato no es un animal cariñoso.

[singular mugagabea]

- (13)a. Katua ez da oso animalia maitakorra. [singular definitua]  
 b. Katu bat ez da animalia maitakorra. [singular mugagabea]  
 (14)a. The cat is not a friendly animal. [singular definitua]  
 b. A cat is not a friendly animal. [singular mugagabea]

Hala ere, aipatzekoa da aditu batzuk proposatzen dutela singularreko esaldi mugagabeak baldintzazko gisa interpretatu behar direla (Krifka et. al. 1995). Adibide batekin ulertzeko: Txakur batek zaunka egiten du; beraz, zerbait txakur bat bada, zaunka egiten du (*A dog barks; if something is a dog, it barks.*).

AG-ei testuinguruak eragiten ez dienez, singular definituetan (a adibidean) espezieaz ari gara katu zehatz bati buruz beharrean. Guztietan berdin funtzionatzen du, euskaraz definitua -a atzizkia (artikulua) gehituz lortzen da, eta gaztelaniaz berriz determinantea aurretik doa, kasu honetan maskulinoa; aipatzekoa da adibidean femeninoa erabiliko bagenu, hau da, “La gata no es cariñosa.”, katu emeez soilik arituko ginatékela. Ikusten dugunez, gaztelaniaz erabiltzen den determinantea beste testuinguru batzuetan ere erabiltzen da, aurreikusenez AG-ez jabetzea edo hauen domeinua izatea zailagoa izan daitekeela haurrentzat, determinatzailearen anbiguetatea medio (Castroviejo et. al, 2022), hala eta guztiz ere, jabekuntzaren auzian aurrerago sakonduko da.

UKA esaldiei dagokionez, euskaraz aurki ditzakegun zenbatzaile unibertsalak: ‘guzti’, ‘den’, ‘oro’ eta ‘bakoitz’ dira, hauek beti ISren ostean agertzen dira (Etxeberria, 2012). Guztiek esanahi bera hartzen dute, baina ‘oro’k ez du pluralik onartzen.

Gaztelaniaz, bi item genituzke: ‘todos/as’ eta ‘cada’, lehena unibertsal *ahultzat* eta bigarrena *indartsutzat* hartzen dituzte aditu batzuk (Krivochen, 2012). Ahula dela esaten da, nolabaiteko salbuespenak onar ditzakela argudiatzen duelako, ez ordea indartsutzat hartzen direnak.

(15) Todos los andaluces son graciosos, pero conozco a un andaluz que no lo es.

‘Andaluziar guztiak barregarriak dira, baina ez den bat ezagutzen dut.’

(16)\*Cada uno de los andaluces es gracioso, pero conozco a uno que no lo es.

‘Andaluziar bakoitza barregarria da, baina ez den bat ezagutzen dut.’



Era honetan, (15) esaldia ulergarritzat jotzen dute, are semantikoki interpretagarritzat, hauen aburuz gertu dago AG bat izatetik; ostera, (16) talde bateko bakoitzaz aritzean bakar baten inplikazioaren ezeztatzea baldintzatuta dago. Biak batera koordinazio estrukturan ere ager daitezke, beti *ahul-indartsu* posizioan, (17) adibidean bezala (Krivochen, 2012). Euskararen kasuan iritzi honi jarraiki, ‘guzti’ eta ‘den’ itemen kasuan, bakarrik agertuta *ahul* bezala hartuko lituzkete, errepikatuta agertzen badira *indartuta* (guzti-guztiak, den-denak).

(17) a) Todos y cada uno de los andaluces es gracioso.

‘Andaluziar guzti-guztiak barregarriak dira.’

b) \* Cada uno y todos de los andaluces es gracioso.

bakoitza bat eta guztiak DET PL andaluziarra barregarria da

Edozeinetara ere, Krivochenen iritzia iritzi, gure ustez *todos* itemak unibertsala izaten jarraitzen du, eta beraz, lan honetan ulertzen dugu, ez duela salbuespenik onartzen.

Ingelesari dagokionez, Lazaridou-Chatzigoga eta bestek (2015) diotenez ez da gehiegi sakondu zenbatzaile unibertsalen barietateen artean, ez da bereizketa gradual bat eman. Hizkuntza honek hiru item ematen ditu: *all*, *every* eta *each*, lehenak interpretazio kolektiboa ahalbidetzen du ‘every’ eta ‘each’ distributiboak dira, azkena lehena baino gehiago; ostera, ‘all’ek ez du interpretazio hori onartzen. (Beghelli & Stowell 1997), Adibideekin ilustratuz:

(18) Jake photographed all the students in the class.

‘Jake-k ikasgelako ikasle guztiei argazkia atera zien.’

(19) Jake photographed every student in the class, but not separately.

‘Jakek ikasgelako ikasle guztiei argazkia atera zien, baina ez banaka.’

(20)\* Jake photographed each student in the class, but not separately.

‘Jakek ikasgelako ikasle bakoitzari argazkia atera zion, baina ez banak.’

(18)k ulertzeraz ematen digu ikasle guztiei atera diela argazkia, eta guztiei batera atera diela ulertzen dugu; (19)k ahalbidetzen digu argazkia ez zaiela banaka atera gehitzea, ez ordea ‘each’ en (20) adibideak, horregatik diogu distributiboagoa dela (Syrett, 2019).

## 2.2. Kuantifikazioaren jabeakuntza

Ikerketan aztergai hartuko den subjektua haurra izanik, kuantifikazioaren jabeakuntzaren inguruan emandakoei erreparatzea dagokigu. Zenbatzaileak, “erreferentzia-terminoak ez bezala, entitate jakin batzuei ez dagozkien adierazpenak dira, aitzitik mota baten barruan kontuan hartu beharreko izen-sintagma batek denotatutako multzoko elementuen kopurua adierazten dute” (Quer 2014), bestela esanda, zenbatzaileek norbanakoen gaineko orokortzeak ezartzen dituzte. Hauen jabeakuntzari dagokionez, “zenbatzaileen jabeakuntza goiztiarraren literaturak (Katsos et al. 2012, 2016; Papafragou eta Musolino 2003; Noveck 2001; Guasti et al. 2005) hurrek zenbatzaileen ezaugarri semantikoak (osotasuna, partzialtasuna, proportzionaltasuna eta monotonizitatea) era gradual batean jabetzen dituztela erakusten du” (Barberan-Recalde, 2019), proposatzen dute hurrek trebetasun pragmatiko hauskorrek dituztela eta faktore pragmatikoekiko sentikortasun txikia izateak isomorfikoak ez diren interpretazioetara iristeko ezintasuna sortzen diela, honen arrazoia *pragmatic deficit stage* (Noveck 2001) deitutako aro batean oinarritu izan da, non hurrek hainbat baliabide pragmatiko oraindik eskuragarri ez dituzten (Barberan-Recalde, 2019). Bestela esanda, autore horien aburuz, kuantifikatzaileak fenomeno pragmatiko bat dira, non hurrek logikaren bidez interpretatzen dituzten, eta helduek, berriz, pragmatikara jotzen duten (Oliver & Lago, 2020).

Egon badaude teoria honen aurka egiten duten adituak ere, Gramatika Unibertsalean oinarritzen direnak hain zuzen ere, lan berean irakurri dezakegu esaterako Lidz & Musolinok (2002) defendatzen duten hipotesia: “kuantifikatzaileak eskuratzea fenomeno sintaktiko hutsa da, logika edo pragmatika jokoaz kanpo utzita” (Oliver & Lago, 2020:45). Iritziak iritzi, lan honen helburua beste bat izanik, ez da sakonduko iritzi desberdin hauetan, baina jakina da hurrek eta helduek ez dutela berdin jokatzen esaldi hauekin aurrerago behatuko ditugun esperimientuek erakusten dutenez.

Adin zehatzetako datuak ematen ditu Lazaridou-Chatzigogak (2018), berriro ere GaD ikuspuntua ekarriz, hurrek berezkoa dutela generikoen erabilera, kognitiboki sinpleena den generikoa ez dutela ikasi behar. Laburbilduz dio, ekoizpenari so eginez, generikoak hurren lehen aroetan aurki daitezkeela argumentatzen du, horretarako CHILDES proiektuko datuak aztertu zituzten Gelman, Goetz, Sarnecka eta Flukes-en (2008) datuak aurkeztuz: 2 urterekin haur guztiek ekoitzi zituzten generikoak eta 4 urterekin jada helduek bezain beste.

Ulermenari dagokionez, Gelmanen aburuz (2010), 4 urterekin generikoak bereizten dituzte «denak» eta «batzuk» zenbatzaileetatik.

### 3. Autismoaren Espektroko Nahasmenaren eragina

Autismoa definitzerako orduan, gaur gaurkoz ez da existitzen arrazoiketa biologikorik, ez da maila etiologikoan gehiegi aztertu, nahiz eta aurreratu den alor horretan, horren adibide ispilu neuronen ikerketa. Emandako definizioak beraz, jokabideari erreparatuz eman dira batik bat. Hau honela, autismoaren adierazpen den **haur-autismoa** disfunzio neurologikoaren portaeraren sindrome bat da, eta ezaugarri hauek ditu: elkarrekintza sozialen alterazioa, komunikazioaren anomaliak (hitzezkoa eta hitzezkoa ez dena), irudimenezko jarduera pobrea eta zurruntasuna ardatz duten hainbat jarduera eta interes izatea (Cornelio-Nieto, 2009), beraz esan dezakegu Kanner-ek 1943an proposatutako definizioak gaurkotasuna duela oraindik: (1) harremanen nahaste kualitatiboa, (2) komunikazioaren eta hizkuntzaren alterazioak, eta (3) buru- eta portaera-malgutasun falta (Rivière, 1997). Interes bizia du azken ezaugarriak aurrera eramaten ari garen ikerketan, izan ere, zurruntasunak edo malgutasun faltak bide ematen du salbuespenak ez onartzeko, eta beraz, AGak onartzen dituzten salbuespenak ez ametitzeko edota UKAk modu oso hertsia batean interpretatzeko. Salbuespenak ez onartzeaz gain, malgutasuna duen pertsona batek pentsamendua edo garatuko duen ekintza ingurunean gertatzen diren aldaketen arabera aldatzeko gaitasuna du, pentsamendu, jokabide edo plan baten mende geratu gabe (Llorente et al., 2022), ez ordea zurrunda den norbaitek.

Hau esanda, aintzat izan behar dugu zurruntasuna ez dela eksklusiboki haur autistengan ematen den fenomeno bat, norbanako neurotipikoetan, autistetan bezala, zurruntasuna egoera “zailetan” manifestatzen dela, kognitiboki edo sozialki egoera desafiagarrietan esaterako (Schwabe & Wolf, 2009), adibide ilustratzailea da heldu neurotipiko batek hileta batean har dezakeen jarrera: aurrez prestatutako esaldiak, gorputz-hizkunta tentsionatua... (Petrolini et al., argitaratu gabe). Hau jakinda, jendeak parte hartzen duen ikerketak egiterako orduan parte-hartzaileak, neurotipikoak zein atipikoak, eroso sentiarazteko ahalegina egitea nahitaezkoa da.

Zurruntasunaren gaiari tiraka, AENeko haurretan ezaugarri honek duen presentzia ondorengoek azaltzen dute: 1) Arestian aipatu dugun aurretiaz zituzten ideia edo pentsamenduetan iltzatuta gelditzeak; 2) egoerei aurre hartzeko ezintasunak, egoera berrien aurrean kondizio zaugarrian geldituz; eta 3) ideia berriak garatzeko ezintasuna. Modu

desberdinetan aurkezten da eta modu horien arabera bi zurruntasun mota bereizten dira: 1) konduktuala edo jokabidezkoa eta 2) kognitiboa. Lehenak, inguruneko aldaketei erantzunez gure portaera aldatzeak dakartzan zailtasunak inplikatzeko, eta portaera motor sentsorial errepikakor bidez manifestatzen da: estereotipia motorrak (eskuak mugitzea, norbere buruaren baitan birak ematea), jokabide autoestimulagarriak (objektuak ahora eramatea), objektuen erabilera errepikakorra edota hots eta hitzen erreproduzio errepikakorra. Bestalde, kognitiboa legoke, ideia berriak garatzeko eta egoera berrietara egokitzeko ezintasunarekin lotuta, honen barruan sartzen dira: aldaketekiko gaitzespena (errutinak bere horretan jarraitu beharra), jokabidezko erritualak (objektuak modu konkretu batean kokatzea), interes murriztuak izatea, ezohiko kezak, objektu batekiko gehiegizko lotura edota pentsamendu dikotomikoa (Llorente et al, 2022), txuri-beltzean pentsatzea bezala ere ezagutua.

Petrolini eta bestek (argitaratu gabe) diote gaiak duen garrantzia izanda ere, sistematikoki gutxi eztabaidatu den alderdia dela. Aipatu lanean, ondorengo ezaugarriak zerrendatzen dira, elkarlotuta dauden ala ez jakin ez badakigu ere:

1. Interes finkoak/murriztuak/mugatuak: Kannerrek (1943) eta gerora etorri diren beste hainbatek lotu dute ezaugarri hau autismoarekin. 2011ko Turner-Brown eta besteren lanak erakutsi zuenez, AEN-eko pertsonak desberdintasun nabariak dituzte neurotipikoekiko interesei dagokionez, bai kualitatiboki eta baita intentsitateari dagokionez; honekin ondorioza daiteke, interes mugatuak izatea autismoaren diagnosirako ezaugarri klinikoa dela. Interes murriztuak interes sendoak edo biziak dira gai edo objektu espezifikoei, esaterako: pertsona batek interesa izan lezake telebistako programa jakin batean, erosi berri duen objektu batean edota matematikan.
2. Berdintasunarekiko eta errutinekiko/erritualekiko insistentzia: Kannerrek proposaturikoa da (1943): “haurraren portaera berdintasuna mantentzeko duen desira obsesibo batek zuzentzen du, oso egoera bakanetan haurrak berak hautsi dezakena. Errutina, altzarien kokapena, patroia, eguneroko ekintzak egiteko ordena aldatzeak etsipenera eramaten dezake”. Adibide bezala, besteren artean, John izeneko haur baten egoera aurkezten du, zeinetan etxe-aldaketa batean langileek gelako alfombra bildu zutenean panikoa sentitu zuen, baina etxe berrira iristean eta gelako altzariak lehen bezala kokatuta ikustean antsietatea bat-batean desagertu zen.

3. Ziurgabetasunarekiko intolerantzia: Konstrukto kognitibo bat da, zeinagatik anbiguotasuna hautemateko atalaseak murrizten diren eta anbiguotasunarekiko edo ziurgabetasunarekiko deserosotasuna handitzen den (Dugas et al., 1998), hau dela eta, askotan modu negatibo batean erantzuten zaie egoera ziurgabeei. Hau ez da soilik AEN-eko jendearen artean soilik ematen, orokorrean antsietatearekin lotzen da.
4. Txuri-beltzean pentsatzea: Pentsamendu dikotomikoak edukitzean datza, guztia modu oso on batean edo oso txar batean interpretatzean, tartean matiz desberdinak atzeman gabe. AEN eta ezaugarri hau lotzen dituen ikerketa enpirikorik ez badago ere, kolektiboko hainbat pertsonak hitz egin dute honen inguruan.
5. Arauk zorrotz betetzea: arauen salbuespenekiko intolerantzia da beste ezaugarrietako bat. Hainbat ikerketek erakutsi dutenez (Blair, 1996; Leslie, 2006) AEN-eko pertsonak gai dira arau sozial eta moralak bereizteko, nahiz eta autisten aldean haur neurotipikoen erantzunak abstrakzio eta arrazoiketa maila altuagoa izan, honen aldean, autistek jarrerren epaiketa ez espezifikoa eman zituzten, “hau ez dago ongi” edota “hau ezin da egin” modukoak (Shulman et al, 2012).
6. Literalismoa: Ezaugarri honek hizkuntza-literarioa ez ulertzeari erantzuten dio, hots, guztia modu literalean ulertzeari. Hau honela, metaforak, ironia eta hizkuntzaren beste hainbat erabilera “malgu” erabiltzeko eta interpretatzeko zailtasuna dute. Honi buruz hitz egin bada ere, ez da diagnosirako tresna kontsideratzen.
7. Koherentzia global ahula: Hainbat azterketek erakutsi dutenez, zailtasunak izan ohi dituzte egoera baten gai nagusiaz jabetzeko, xehetasunetan galtzen direlako (Happé & Frith, 2006). Honen harira, nekez lotzen dituzte bi egoera, haietako informazio nagusia lortu ezean analogiak egitea ia ezinezkoa delako.
8. Jardueraz aldatzea: Gaitasun honek eskatzen du egoera edozein dela ere momentuko pentsamendu edota jarduera, hontatik askatu eta beste batera jauzi egitea; hau egiteko berebiziko ezintasuna dute AEN-eko indibiduoek.

Malgutasunaren alderdi kognitiboak zabal aztertzeke hutsune nabariak zeuden, eta honi erantzunez sortu zen Strang eta besteren 2017ko *Flexibility Scale*, hots,

malgutasun/zurruntasun eskala. Guraso/tutorearen kontaketa-neurri bat da, AEN duten gazteen malgutasuaren dimentsio aniztasuna ebaluatzeko garatua, honen barnean daude: eguneroko bizitzako malgutasunaren alderdi kognitiboak, errutinak, trantsizioak/aldaketak, interes bereziak, gizarte-malgutasuna eta orokortasuna. Likert eskalan neurtzen da, 4 puntukoa: 0tik (ez) 3ra (beti) doana. 27 galdera biltzen ditu, horien artean daude: “ohera joaterako orduan zerbait berezia egiten du, adibidez, bere mantatxoa burukoaren azpian sartu lotara sartu baino lehen” (errutinak eta erritualak), “gauzak desberdin egiteko eskatzean kexatu egiten da” (trantsizioa/aldaketa), “modu errepikakor batean gauza zehatz bati buruz, hitz egiten, marrazten edo idazten du, esaterako, une oro kotxeen inguruan aritzen da” (interes bereziak), “jostailuak edo bestelako objektuak partekatzen ditu” (malgutasun soziala) eta “elkarrizketetan besteen ideiak aintzat hartzen ditu” (orokorrak). Zenbaki guztien batura egiten da, azken bi ataletako galdera batzuk alderantziz zenbatzen direlarik, hots, 3 markatu bada 0 gehitzen zaio, aipatutako adibideak kasu.

#### **4. Esperimentua**


Behaketa burutzerako orduan, Gasteizko kanpuseko Micaela Portilla ikergunean bildu ginen partaideekin, bertan informazioa jaso genuen eta gerora datuak analizatu ditut ondorioak ateratzeko asmoz. Hau honela, jasotako informazioa eskuartean, Espekto Autistako Ezaugarriak dituzten sei hurrekin eginiko esperimntuko atalak honela bereiziko dira: lehenik erabili den metodologia aurkeztuko da, Castroviejo eta besteren (2022) ereduari jarraituz. Hipotesi nagusia plazaratu baino lehen aurrekariak izango dira hizpide. Amaitzeko emaitzak aurkeztuko dira eta honekin batera eztabaida.

##### *4.1. Aurrekariak*

Aintzat hartzekoa da, UKA esaldiei dagokionean, esperimntu gehienak ingelesean oinarrituz egin direla, nahiz eta gutxi badira ere, badauden beste hizkuntza batzuetan eginikoak ere, dena den ez dugu informazio gehiegirik. AGri dagokionean, gaztelaniaz badira hainbat ikerketa, batzuetan grezieraren jokaera berdinarekin erkatzen da (Lazaridou-Chatzigoga & Katsos, 2019), bi-bietan generikoak plural definituaren bidez osatzen baitira.

Bestetik, eta bereziki jarraituko dena Castroviejo eta besterena genuke (2022), *GaD* hipotesiaren baitan hiru adin talderekin eginikoa (4-5 urte bitarteko haurrak, 8-9 urteko haurrak, eta helduak). Ikerketan aurreratzen digute, aparientzian AGak UKAk baino errazagoak badirudite ere, haien esperimntuaren emaitzei hurbilgotik begiratzeak kontrakoa

erakusten duela, “haur txikiak haur helduagoak baino generikoen salbuespenekiko toleranteagoak izan arren, ez dute helduen portaera bera AGen interpretazioan”. Emaitzetan ikusten dugu AGen baldintzak adin talde guztiek gehiago onartzen dituzte UKAena baino; geroz eta helduagoa izan, baxuagoa UKA esaldien onarpena. Datu hauek argi eta garbi erakusten dute garapen-efektua: batetik, adinarekin UKAko salbuespenekiko intolerantzia handiagoa garatzen dela eta/edo bigarrenik adinarekin AGko salbuespenekiko tolerantzia handiagoa izaten dela, ondorengo grafikoan ikusten den modura. Gure kasuan haur helduen taldearen, hau da, 8-9 urte bitartekoenaren, jokaera izango da alderatuko dena.



1. grafikoa:  
Salbuespen baten irudia aurkeztean orokortzei (AG zein UKA) emandako erantzun positiboaren ehunekoa adin-taldeka.

#### 4.2. Hipotesi nagusiak

Aintzat hartuz, espektro autistako haurren gutxieneko adimen-koefizientea 8/9 urteko haur baten baliokidea dela (Castroviejo et. al, 2022), hainbat hipotesi nagusi genituzke:

- 1) GaD ikuspuntua zuzena bada, ziurrenik AENeko haurren jarrera heldu neurotipikoen antzekoagoa izango da generikoen kasuan, baina ez unibertsalenean. Hau da, GOG efektu bat izatea posible da zeinak unibertsalak generikoak bailiran tratatzea ekarriko luken.
- 2) AENeko ezaugarrietako bat zurruntasuna (malgutasun falta) dela kontuan hartuz, eta honen barruan arauak zurrun jarraitzea sartzen denez, aurreikus genezake AEN duten haurren tolerantzia haur neurotipikoena baino baxuagoa izatea salbuespenekiko. Hau

dela eta, 4.3. atalean aurkeztuko den diseinuaren baitan, espero genezake AENeko haurrek “ez” erantzuna neurotipikoek baino maizago ematea.


- 3) AENeko haurren berezkoa den zurruntasun kognitiboak informazioa eguneratzeko zailtasunak izatera eramán ditzake. Kasu honetan, sinesmenak berrikusiko ditu, sinesmen horiekin kontraesanean egon daitekeen informazio berria ikusita. Sinesmenak berrikusteko prozesu horretarako, malgutasun kognitiboa behar da, eta, horrez gain, memoria lana eta eguneratzea ondo kontrolatu behar dira (horiek guztiak funtzio betearazleak dira, AENen konprometituta egon ohi direnak). Beraz, aurreikus dezakegu informazioa berritzean zailtasunak izango direla.

### *4.3. Metodologia*


#### *4.3.1. Diseinua*

Azterketa gauzatzeko, aurretiaz Castroviejo eta besteren azterketarako (2022) erabilitako programa, E-Prime 3.0., eta diseinu bera erabili dira: lehenik, pantailan testu bat agertzen da, ahoz gora parte-hartzaileari irakurtzen zaio egin beharko duena azalduz, hots, hainbat irudi ikusiko dituela eta honen ostean Amaia izeneko pertsona batek galderak egingo dizkiola eta baiezko ala ezezko erantzuna eman beharko diola; lehen fasea beroketa edo entrenatzekoa da, parte-hartzaileak ulertu duen ala ez ikusteko. Honen ostean benetazko irudiak agertzen datoz, esaterako gorila txuri bat eta honekin batera “gorila txuri bat” esaten duen ahotsa (1.irudia). Gero galderak: “Gorilak beltzak direla esango zenuke?” (“¿Dirías que los gorilas son negros?”) edo “Gorila guztiak beltzak direla esango zenuke?” (“¿Dirías que todos los gorilas son negros?”), batzuetan AG modukoa eta besteetan UKA, birritan egiten da galdera bera, galdera egin bitartean irudia agertzen da neurri txikiagoan (2.irudia). Galderak bi modutan egiten dira bi zerrenda desberdin daudelako, eta zerrenda bakoitzean item bakoitza kondizio batean ala bestean agertzen da, esaterako, 1.zerrendan gorilaren galdera generikoan dago eta bigarreanean unibertsalean, bestelako galdera bat ordea 1.zerrendan unibertsalean eta bigarreanean generikoan. Parte-hartzaile erdiei lehen zerrenda eta besteei bigarrena pasa zitzaien.





Esperimentuko 1.pantaila:  
salbuespena erakusten duen irudia



Esperimentuko 2.pantaila:  
salbuespena erakusten duen irudia txikian

Tartean, ez nekatzeko erlaxatzeko momentu bat dago non arrainen irudiak agertzen diren musikaz lagundurik; honen atzetik, azken galderak datoz. Interesatzen zaizkigun galderen tartean, *filler* deiturikoak ere badaude, egiaztatzeko parte-hartzailea ez dela ausazko erantzunak ematen ari eta benetan ulertzen eta parte-hartze aktiboa izaten ari dela, esaterako, “Garfio kapitaina txintxoia dela esango zenuke?” edo “Andramari Zuriaren plaza Gasteizen dagoela esango zenuke?” moduko galderak, zeinak parte-hartzaileen mundu-ezagutza kontuan hartuz gertukoak zaizkien.

#### 4.3.2. Materiala

Esperimentua gauzatzeko, 8 item daude benetazko generikoei dagozkienak, eta gehiengoaren ezaugarriak dituztenak, esaterako, “Katuek biboteak dituzte.” (“Los gatos tienen bigotes.”) eta baita honi dagozkion 8 item unibertsal ere, “Katu guztiek biboteak dituzte.” (“Todos los gatos tienen bigotes.”). Harez gain, beste 16 item daude zeinak ez duten lekurik Leslie et al. (2011)-en sailkapenean, generiko faltsu deituko diegunak, adibidez, “Teilatuak beltzak dira.” (“Los tejados son negros.”). Lehenengo bien kasuan, salbuespen baten irudia eskaintzen da eta azkenekoan ordea, esaldia balioztatzen duen irudi bat. Harez gain beste 16 item daude, esperimientua jarraitzen ari diren ala ez ikusteko (*fillerrak*).

#### 4.3.3. Prozedura

Hasi baino lehen, parte-hartzaileari zer egin beharko duen azaltzen zaio, honetarako prestatuta dagoen testu bat irakurrita; bertan bereziki azpimarratzen da jarraian ikusiko dituzten irudi guztiak benetazkoak direla eta bere iritzia jakin nahi dugula besterik ez. Arestian aipaturiko beroketaren ostean galderak datozte, *filler*-ekin batera, aipatzekoa da

parte-hartzaile bakoitzari ausazko orden batean agertzen zaizkiola. Galderak galdetzaileak jasotzen ditu ordenagailuko saguaren bitartez parte-hartzaileak ahoz gora esaten dituen bitartean, orotara orduerdi inguru luzatzen da. Erantzunak kalkulu-orri batera bideratzen dira 0 baiezkoko erantzuna eta 1 ezezkoa direlarik.

#### 4.3.4. Parte-hartzaileak

Adin desberdineko AEN-eko 6 haur/gazte izango ditugu ikerketaren oinarri, guztiak mutilak eta ahozko hitzezko komunikazioa dutenak LH1 gaztelania dutelarik. Guztiek onartu zuten parte hartzea eta euren gurasoekin bertaratu ziren UPV/EHUko Gasteizko Arabako Kanpuseko Micaela Portilla ikergunera. Onespina bermatzeko, gurasoek hasi baino lehen baimena emanaz onespina ziurtagiri bat sinatu zuten. Honez gain, tutoreei zurruntasun maila neurtzeko galdetegia pasa zitzaion, 3. atalean aipaturiko Strang eta besteren 2017ko *Flexibility Scale*-n, hots, Malgutasun Eskalaren, egokitzapen bat, non, “zailtasunak ditu errutina/ordutegi-aldaketekin”, “zorrotza da gizarte-arauekin, hau da, salbuespenik gabe jarraitzea nahi du”, “ideia berriak erraz bururatzen zaizkio” edo “perfekzionista, akatsekiko intolerantea edo desbideratze txikiekiko intolerantea” modukoak dauden.

Honi gehituko dizkiogu, ADOS-2 (Escala de Observación para el Diagnóstico del Autismo), datuak, eskala hau espektro autistako nahasmenen bat izan dezakela susmatzen den norbaiti egiten zaion komunikazioaren, gizarte-elkarrekintzaren eta jolasaren, eta baita irudimenaren erabileraren ebaluazio estandarizatua da (Lord et al., 2015), non Gotham et al.ek (2009) proposaturiko batetik hamarrerako eskalan, 4-5 espektro autista kontsideratzen den eta 6-10 autismoa; honek autismoaren eta garapenaren nahaste orokorren ebaluazio eta diagnostiko zehatza ahalbidetzen du, adin eta garapen-maila eta hizkuntza-maila desberdineko subjektuetan. Datu hauei gehituko zaizkie: hizkuntza gaitasuna CELF-5 eskalan, hitzezko adimena WISC (Wechsler Intelligence Scale for Children) eskalan, inteligentzia ez berbala eta CI ez berbala Leiter eskalan eta adin mental berbala (kasuan kasu datu batzuk falta dira).

Norbanako bakoitza zenbaki batez ordezkatuta honakoak dira bakoitzaren ezaugarriak:

1. **10 urte.** ADOS-2 eskalan, 6. gaitasun linguistikoak CELF-5 eskalan 81(normaltasuna edo adinarekiko egokitasuna 90etik gora kokatzen da). Leiter eskalan adimen maila ez


berbala ertaina eta CIA 101ekoa. Adin mental berbala 8 urte eta hilabete batekoa. Zurruntasun maila 47koa (81etik).

2. **8 urte.** ADOS-2 eskalan, 4. Gaitasun linguistikoak CELF-5 eskalan 93. Leiter eskalan adimen maila ez berbala altua eta CIA 125ekoa. Adin mental berbala 5 urtekoa. Zurruntasun maila 62koa.
3. **11 urte.** ADOS-2 eskalan, 6. Hitzezko adimena WISC eskalan 89koa, gaitasun linguistikoak CELF-5 eskalan 100. Zurruntasun maila 48koa.
4. **15 urte.** ADOS-2 eskalan, 9. Hitzezko adimena WISC eskalan 100ekoa. Zurruntasun maila 42koa.
5. **11 urte.** ADOS-2 eskalan, 7. Gaitasun linguistikoak CELF-5 eskalan 81. Zurruntasun maila jaso gabe dago, ezin izan zitzaion galdeketa pasa.
6. **9 urte.** ADOS-2 eskalan, 6. Hitzezko adimena WISC eskalan 79koa. Gaitasun linguistikoak CELF-5 eskalan 90. Leiter eskalan adimen maila ez berbala ertaina eta CIA 97koa. Zurruntasun maila 52koa.


#### 4.4. Emaitzak

##### 4.4.1. AG eta UKA

AGei dagokionez, hauen onarpena ia %100ekoa da parte-hartzaile guztietan [1,2,4,6] 2.grafikoan ikus dezakegun modura, onarpen tasa baxuena %75 izanik [3], eta bigarren altuena %87,5ekoa. Aipagarria da, parte-hartzaile baten kasuan [2] emaitza hauen justifikazioa ezagutzera eman zuela: “batzuk bai, beraz bai”, gauza bera egin zuen generiko faltsuekin ere (aurrerago ikusiko dugunez).



2.grafikoa: salbuespen bat agertzean AG moduko enuntziatuei emandako erantzunak partaideko



3.grafikoa: salbuespen bat agertzean UKA moduko enuntziatuei emandako erantzunak partaideko


UKA esaldiei erreparatuz, hauen onarpena ez dago hain orokortua eta erantzunak anitzak dira. 3 partaidek %50etik gorako onarpena dute hauekiko eta gainontzekoenak erdiaren azpitik kokatzen dira (ikus 3. grafikoa). Halere, aipagarria da aurreko kasuan ez bezala, %100eko onarpenik ez dugula topatzen, gehienez %87,5ekoa [5,6], onarpen tasa baxuena %37,5ekoa delarik [2]. Frekuentzia erlatiboari so egiten badiogu, aurreko datuak berresten dira, %94ean onartzen dira Egiazko Generikoak eta %65ean Unibertsalak (2.taula), modu argigarrian ikus dezakegu 4.grafikoan.

**1.taula** Bi IS moten 'bai'/'ez' erantzunen frekuentzia absolutua

	Bai	Ez	Guztira
Egiazko generikoak	45	3	48
Unibertsalak	31	17	48

**2.taula** Bi IS moten 'bai'/'ez' erantzunen ehunekoa


	Bai	Ez
Egiazko generikoak	94%	6%
Unibertsalak	65%	35%



4.grafikoa: Egiazko Generiko eta Unibertsalekiko onarpenaren ehuneko orokorra

5.grafikoak, AG eta UKA esaldien onarpenaren konparaketa erakusten duenak, argitzen digu AGak %100ean onartzen dituztenek UKA modukoekiko onarpen baxuagoa

dutela, [1,2,4], nahiz eta [6] partaidea salbuespena litzateken, tasa altuenak dituelarik AG eta UKA bien onarpenean; [3,5]ek pareko onarpena dute AG eta UKAekiko.




5.grafikoa: AG eta UKA enuntziatuen baiezko erantzunen konparaketa partaideko

Adinari bagagozkio, adin kronologikoari ez ezik bestelako datuei ere begiratu behar bazaie ere, partaide gazteenak [2] eta helduenak [4] jokaera oso antzekoa dute, konparaketa honetan aintzat hartu beharrekoa da partaide gazteenaren CI altua (125). Zurruntasun mailari dagokionez, arestiko berberak dira datu altuenak dituenak [2] eta baxuenak dituenak [4].

#### 4.4.2. Generiko faltsuak

Atal honetan bereizi behar ditugu batetik, generiko faltsuak (16 item), esaterako “Teilatu guztiak beltzak direla esango zenuke?”. Atal honetan ere datuak oso bereiziak dira (ikus *6.grafikoa*), [1,3], [2,4] eta [5,6] bikoteak osa genitzake adierazpen hauekiko jokaera aintzat hartuz. Lehen bikotearen onarpen tasa oso baxua da %25etik beherakoa, %18,75 baxuena [3]; aldiz beste bi bikoteen onarpen tasa baxuena %62.5 [5], ostera, altuena %81,25 [2,4] delarik. Aurreko atalean aipatu modura, [2]k justifikaturiko erantzunak eman zituen, horregatik da bere onarpen-tasa hain altua.



6. grafikoa: Controlgen enuntziatuei emandako baiezko erantzuna partaideko


Onarpen-tasa baxuaren zergati bat ezagutzeko, adibide batekin ilustratuz, [3] partaidearen kasua genuke, zeinari absurdua zeritzon erakusten genion guztia, eta txantxa modura interpretatzen zuen, hori dela eta bere onarpen-tasa oso baxua da, honen beste erakusgarri bat da AG eta UKAk ere ez dituela %100ean onartzen.

Egiazko generikoen onarpena, frekuentzia erlatiboari erreparatuz, arestian aipatu modura %94koa da, oso bestelakoa da generiko faltsuen kasua, %56eko onarpena dute (ikus 5.taula), baxuagoa izan arren datu altua da generiko faltsuentzat. Bi-bien kasuan, irudietan agertzen zenaz haratago aurretik zuten jakintza baliatu zuten erantzunak ematerakoa orduan: bai salbuespena agertzen zen adibideetan, egiazko generikoetan, eta baita irudian esaldia babesten zuen irudia azaltzean ere, hau da, generiko faltsuetan.

**4.taula.** Bi generiko moten 'bai'/'ez' erantzunen frekuentzia absolutua

	Bai	Ez	Guztira
Egiazko Generikoa	45	3	48
Generiko Faltsua	54	42	96

**5. taula.** ‘Bai’/‘ez’ erantzunen ehunekoa bi generiko motetan



Beraz, datu hauekin ikus dezakegu generikoek berez onartzen dituzten salbuespenak onartzen dituztela; eta bestetik, informazio berria agertzean honek kasu erdietan eragin dezakela erantzuna ematerako orduan, generiko faltsu batzuk onartzeraino, nolana ere, gogoan izan behar da orokorrean aurretik zuten informazioan konfiatzen dutela.

**4.5. Eztabaida**

**4.5.1. GaD ikuspuntua eta GOG efektua**

Emaitzak behatuz, esan genezake GOG efektu bat ematen dela, UKAen onarpenaren frekuentzia erlatiboari so eginez erditik gorakoa baita (%65). Hau honela, ulertzen dugu parte-hartzaileek UKAk AGak bailiran interpretatzen dituztela kasu batzuetan. Dena dela, haur neurotipikoen jokaerarekin alderatuz ikus daiteke gure partaideen jokaera desberdina dela, haur txikiaren emaitzei gehiago hurbiltzen direlarik (ikus 6.taula). Beraz, Lesliere (2007) proposamena berrekarriz (AGak 1 sistemari atxikitzea eta UKAk 2 sistemari), zuzena dela pentsa daiteke, hau da, 1 sistemaren alferkerizko gehiegizko erabilerak dakarrela efektu hau.

**6.taula:** haur neurotipikoen bi taldeen eta AENeko partaideen datuak (Neurotipikoen datuak Castroviejo eta besteren (2022) lanetik)

TALDEAK	AGen onarpena	UKAen onarpena
<b>4-5 urteko NT<sup>2</sup></b>	%92	%70
<b>8-9 urteko NT</b>	%72	%36
<b>8-15 urteko AEN</b>	%94	%65

<sup>2</sup> NT: Neurotipikoa

Aurretik aipatutakoari tiraka, GaD ikuspuntua legoke eztabaidagai, hots, generikoek ez dutela unibertsalen prozesamendu bera behar eta errazagoak direla interpretatzeko, emaitzei begiratzuz teoria hau berresten da, frekuentzia erlatiboari dagokionez %94ko onarpena baitute; hipotesia berrekarriz ordea, AENeko haur/gazte hauen emaitzak haur txikienen emaitzetatik hurbilago daude beste behin ere. Beraz, orokorrean esan dezakegu hipotesia erdizka bete dela, GOG efektua eman izanak UKAen onarpena igotzea ekarri baitu, GaD hipotesia ere berresten dute emaitzek, baina partaideen erantzunak ez dira haur helduenen emaitzekin parekatzen, txikienen taldearekin baizik.

#### 4.5.2. Zurruntasuna eta salbuespenak

2. hipotesiari helduz, emaitzek aurreratzen digute ez dela betetzen, izan ere, AENeko kide hauek salbuespenak onartzen dituzte, haur neurotipiko gazteenek baino gutxiago baina zaharrenek baino gehiagotan. Alegia, UKA esaldien onarpena %65ekoa da eta era horretan, %65ekoa da salbuespenen onarpena. Alabaina, zurruntasun maila altuena duen partaidearen [2] kasuari erreparatzen badiogu, UKA esaldien onarpena, hots, salbuespenak onartzea %37,5era jaisten da, honek aurrera lezake zurruntasunak nolabaiteko zeresana izan dezakela; edonola ere, arestian aipatu modura frekuentzia erlatiboak ez digu halakorik adierazten.

Bestalde, aipatzekoa da Strangen eskalan gure partaideen zurruntasun maila ez dela hain altua izan (altuenaren zifra 62koa eta puntuaketa altuena 81ekoa izaten da), eta honenbestez ez dutela arazorik salbuespenak onartzeko. Beraz, ondoriozta dezakegu Strangen eskalako emaitzak bateragarriak izan daitezkeela behatutako portaerarekin, hots, nolabaiteko jokamolde malgu batekin.

#### 4.5.3. Informazioa eguneratzea

Azken hipotesiaren ebazpena igaroz, datuek eta partaideen jokamoldeek baieztatu egiten dute AENeko kideek zailtasunak izaten dituztela informazioa eguneratzeko orduan. Alegia, badirudi egia dela aurretiaz zituzten ideia edo pentsamenduetan iltzatuta gelditzen direla eta egoera berrien aurrean ez dituztela ideia berriak garatzen (Llorente et al., 2022).

Honen erakusgarri da, orokorrean, erantzun guztiak ematean partaideek irudietan ikusten zutenagatik baino aurretiaz zuten ezagutza erabiltzen zutela erantzuteko; esaterako, partaide baten kasuan, “Pertsona guztiek hortzak dituztela esango zenuke?” galderan, ezezko erantzuna eman zen baina ez irudiko agurea kontuan izanik, haur txikienek hortzik ez dutela



argudiatuz, hau da, aurretiaz zuen ezagutza baliatuz. Era honetara argudiaketa honetara mugatzen da: haur txikiek ez dute hortzik beraz pertsona guztiok ez dugu haginik, inondik ere egoera berrian agertutako irudiko agurea aintzat hartu gabe. Bestetik, generiko faltsuen onarpenean fokua jarritz, %54ra igotzen da baiespena; kontuan izan beharrekoa da kasu honetan input berriak bideratutakoa dela, irudian salbuespenaren ordean enuntziatua berresten duen irudia agertzen baita. Honek erakusten du nolabait informazio berria prozesatzeko ahalmena ere badutela.

Guzti hau esanda ere, aipatzekoa da erantzun solidoago bat eman ahal izateko, haur gehiagoren datuak biltzeaz gain (15 bat gehiago inguru), lan-memoriari buruzko datu gehigarri gehiago ere jaso behar liratekela, besteak beste WISC eskalakoak, haur txikientzako Wechsler adimenaren eskala (WISC-V) banakako tresna kliniko bat da 6 urtetik 16 urte eta 11 hilabetera bitarteko haurren adimena ebaluatzen duena (COP, 2021). Hau honela, erantzun beteagoak lortzeko, interesgarria litzateke WISC-Veko datuak izatea, adimena delako giza portaera ulertzeko garrantzi handieneko faktore psikologikoetako bat. Eskala honek, adimenaren indize primarioen puntuazioak eskaintzen ditu: hitzezko ulermena, lan-memoria edota prozesatze-abiadura besteren artean (COP, 2021). Partaide batzuen WISC eskalako hitzezko adimenaren datuak izan badira, baina lan-memoria eta prozesatze-abiadurarenak izateak gauza gehiago argitu litzakete. Haatik, gehien bat aurretik zuten informazioan berresten dira, eta beraz, esan daiteke hipotesia betetzen dela.

## **5. Ondorioak**

Lana biribiltze aldera, ondorio orokorrak plazaratuz, lana abiarazterakoan proposatutako helburuak bete direla uste dut, ikerketa esperimentalera lehen urratsak emanaz hainbat ondoriotara heltzeko aukera izan baitugu. Ondorioetara iristeko bidean, orokortzeak adierazteko bi estrategien inguruan esandakoak bildu eta konparatu ondoren, Autismoaren Espektroko kideetan hartuko zuen nolakotasuna aurreikustearekin sortutako hipotesiek hainbat fruitu eman dituztela esan genezake. Dena dela, ezin azpimarratu gabe utzi azterlan honek izan dituen mugak: partaide kopurua 6koa izanik ezinezkoa da ondorio solidoetara iristea, honetarako beharrezkoa litzatekelako gutxienez 15-20 haur gehiagori esperimentua pasatzea, eta emaitzak are sendoagoak izateko hauek adin berekoak izatea.

Guzti hau esanda ere, ikerketa esperimentalean fokua jarritz, ekarpen xume honetatik hainbat ondorio atera ahal izan ditugu: GaD ikuspuntua berresten du GOG efektu bat ematen

dela baieztatzen duen era berean, hau da, generikoak prozesatzeko errazagoak diren heinean hauen onarpena askoz altuagoa da. Edonola ere, generiko faltsuei erreparatuz ikus dezakegu hauek ez direla ukatzeko hain errazak; beraz, GaD bateragarria da gure datuekin baldin eta pentsatzen badugu Leslie & Gelmanek (2012) generikotzat egiazkoak soilik hartzen zituztela. Bestenaz, GOG efektuaren ondorioz partaideek unibertsalak generiko modura ulertzea ere ekarri die, salbuespenak %50etik gorako frekuentziarekin onartu baitituzte. Halaber, baloratzekoa deritzot, Krivochenen (2021) ikuspegia berrekartzeari, izan ere, hark egindako unibertsal *ahul* ('*todos*') eta *indartsu* ('*todos y cada uno*') bereizketa kontuan hartuz gero ikerketa berdiseinatu litzatekela iruditzen zait. Era honetan, unibertsal indartsuek osaturiko adierazpenen salbuespen tasa-baxuagoa izan litekela susmatzen dut. Lanak dituen mugak gogoan izanik, batik bat partaide gutxiegi, ateratako ondorioetan berresteko eta ondorio gardenagoak eta sakonagoak lortzeko ikerketa luzeagoa eta osoagoa behar litzateke: partaide gehiago, baldintza hobeak eta informazio gehiago (zeharkakoa zein zuzeneko).

Bestalde, interesgarria irizten diot euskal hiztunei, hots, H1 euskara duten AENeko komunitateko hurrei ikerketa hau pasatzea; honen diseinurako, Etxeberriaren (2021) lana oinarri hartuz UKAk sortzeko 2.atalean aipaturiko: 'guzti', 'den', 'oro' edo 'bakoitz' itemak erabil genitzake. Alabaina partaideen soziologia edozein dela ere, 'guzti' litzateke orokortuena, eta aurretik aipatu modura 'guzti-guztiak' forma indartua (Krivochen, 2012) erabiliko nuke, GOG efektua nolabait ekidin nahirik.

## 6. Bibliografia

Barberán-Recalde, T. (2019). The Acquisition of Basque And Spanish Quantifiers: An Empirical Study. Doktorego tesia, UPV/EHU.

Beghelli, F., & T. Stowell. (1997). Distributivity and negation: The syntax of each and every. In *Ways of scope taking*, ed. by A. Szabolcsi, 71–107. Springer.

Castroviejo E., Lazaridou-Chatzigoga D., Ponciano M., Vicente A. (2022). "Generics as default? Comparing the acquisition of universals and generics in Spanish" *Language Learning and Development-en argitaratzeko onartua*.

Consejo General de la Psicología (2021). Evaluación de la escala de inteligencia de Wechsler para niños-V (WISC-V)

Cornelio-Nieto JO. (2009). Autismo infantil y neuronas en espejo. *Rev Neurol*; 48 (Supl 2): S27-9

Dahl, Ö. (1995). The marking of the episodic/generic distinction in tense-aspect systems. In G. Carlson & F. J. Pelletier (Eds.) *The Generic Book*. Chicago: Chicago University Press. 412-425.

Dugas, M. J., Gagnon, F., Ladouceur, R., & Freston, M. H. (1998). Generalized anxiety disorder: A preliminary test of a conceptual model. *Behaviour research and therapy*, 36(2), 215-226.

Etxeberria U. (2012). Quantification in Basque. In *Handbook of Quantifiers in Natural Language*, E. Keenan & D. Paperno (eds), 83–164. Berlin: Springer.

Gelman, S. A., Goetz, P. J., Sarnecka, B. W. & Flukes, J. (2008). Generic language in parent–child conversations. *Language Learning and Development*, 4(1), 1–31.

Gotham, K., Pickles, A., & Lord, C. (2009). Standardizing ADOS scores for a measure of severity in autism spectrum disorders. *Journal of autism and developmental disorders*, 39(5), 693-705.

Happé, F., & Frith, U. (2006). The weak coherence account: detail-focused cognitive style in autism spectrum disorders. *Journal of autism and developmental disorders*, 36(1), 5-25.

Katsos, N., Cummins, C., Ezeizabarrena, M., Gavarró, A., Kraljević, J. K., et al. (2016). Cross-linguistic patterns in the acquisition of quantifiers. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America*, 113(33): 9244–9249.01

Katsos, N, Roqueta, CA, Clemente Estevan, RA & Cummins, C (2011). 'Are children with Specific Language Impairment competent with the pragmatics and logic of quantification?', *Cognition*, vol. 119, no. 1, pp. 43-57.

Kanner, L. (1943). Autistic disturbances of affective contact. *Nervous Child*, 2, 217–250.

Krifka, M., Pelletier, F., Carlson, G., ter Meulen, A., Chierchia, G. & Link, G. (1995). Genericity: An Introduction. In G. Carlson & F. J. Pelletier (Eds.). *The Generic Book*. Chicago: Chicago University Press. 1-125.

Krivochen, D. G. (2012). Cuantificadores y determinantes: Una perspectiva de interfaz. *Ianua. Revista Philologica Romanica*, (12), 57-84.

Lazaridou-Chatzigoga, D., N. Katsos & L. Stockall. (2015). Genericity is easy? Formal and experimental perspectives. In Hansen, N. and Borg, E. (Eds.), *RATIO 28(4), Special Issue: Investigating Meaning: Experimental Approaches*, 470-494.

Lazaridou-Chatzigoga D. (2017). “Experimental perspectives on genericity”. In *Handbook of Experimental Semantics and Pragmatics*. Humboldt-Universität zu Berlin/University of Cambridge.

Lazaridou-Chatzigoga, D., L. Stockall & N. Katsos. (2019). Contextualising Generic and Universal Generalisations: Quantifier Domain Restriction and the Generic Overgeneralisation Effect. *Journal of Semantics*, 36: 617–664.

Leslie, Sarah-Jane, Snageet Khemlani & Sam Glucksberg (2011). All Ducks Lay Eggs: The Generic Overgeneralization Effect. *Journal of Memory and Language* 65(1), 15-31.

Leslie, S.-J., & Gelman, S. A. (2012). Quantified statements are recalled as generics: Evidence from preschool children and adults. *Cognitive Psychology*, 64(3), 186–214.

Lidz, J., & Musolino, J. (2002). Children's command of quantification. *Cognition*, 84(2), 113–154.

Lord, C., Rutter, M., DiLavore, P. C., Risi, S., Gotham, K. y Bishop, S. L. (2015). ADOS-2. Escala de Observación para el Diagnóstico del Autismo - 2 . Manual (Parte I): Módulos 1-4 (T. Luque, adaptadora). Madrid: TEA Ediciones.

Llorente, M., J. Martos, R. Ayuda, S. Freire, A. González & I. Gutiérrez (2022). Inflexibilidad en los niños con TEA. Rituales, estereotipias, intereses y retahílas. *Estrategias prácticas para el día a día*. Madrid: CEPE editorial.

Noveck A. (2001). When children are more logical than adults: experimental investigations of scalar implicature. *Cognition*, Volume 78 (165-188)

Oliver, José María, & Alabart Lago, Lucía. (2020). Algunas observaciones sobre la adquisición de la cuantificación. *RASAL lingüística*, (2), 33–54.

Pelletier, Francis J. (2010). Generics: a philosophical introduction. In *Kinds, things, and stuff: The cognitive side of generics and mass terms, New directions in cognitive science*, ed. by Francis J. Pelletier, 3-15. New York: Oxford University Press

Quer J. (2011). “Quantificational strategies across language modalities”. In: Aloni M, Kimmelman V, Roelofsen F, Sassoon G, Schulz K, Westera M, editors. *Logic, language and meaning*. 18th Amsterdam Colloquium; 2011 Dec 19-21; Amsterdam. Berlin: Springer; 2012. p. 82-91. (LNCS, no. 7218). DOI: 10.1007/978-3-642-31482-7\_9

Quer J. (2014). “Cuantificación”, in: Espinal, M. (coord.) *Semántica*. Madrid: Akal. Capítulo 5, 223-254.

Rimell L. (2004). Habitual Sentences and Generic Quantification. *Hizkuntzalaritzari buruzko Mendebaldeko Kostako 23. Konferentziako aktak (WCCFL-23)*, pp.663-676, Davis, California.

Rivière, A. (1997). *Desarrollo normal y Autismo (1/2)*. Universidad Autónoma de Madrid.

Schwabe, L., & Wolf, O. T. (2009). Stress prompts habit behavior in humans. *Journal of Neuroscience*, 29(22), 7191-7198

Shulman, C., Guberman, A., Shiling, N., & Bauminger, N. (2012). Moral and social reasoning in autism spectrum disorders. *Journal of autism and developmental disorders*, 42(7), 1364-1376.

South, M., & Rodgers, J. (2017). Sensory, emotional and cognitive contributions to anxiety in autism spectrum disorders. *Frontiers in human neuroscience*, *11*, 20.

Strang, J.F., Anthony, L.G., Yerys, B.E., Hardy, K.K., Wallace, G.L., Armour, A.C., Dudley, K., & Kenworthy, L. (2017). The Flexibility Scale: development and preliminary validation of a cognitive flexibility measure in children with autism spectrum disorders. *Journal of Autism and Developmental Disorders*.

Surian, L., Baron-Cohen, S., & van der Lely, H. K. J. (1996). Are children with autism deaf to Gricean maxims? *Cognitive Neuropsychiatry*, *1*, 55–71.

Syrett, Kristen. 2019. Distributivity. In Chris Cummins & Napoleon Katsos (eds.), *The Oxford handbook of experimental semantics and pragmatics*. Oxford: Oxford University Press.